



Ezker abertzalea: «750. urteurrenaren irakurketa ezberdina egin behar da»

DEIALDIA ▶ Konzentziora deitu du asteazkenean, 18:30ean, Leidorren **HISTORIA** ▶ «Data hau ez da ospatzeko, oroimenerako baizik» ▶ 5

TOLOSA ▶

Instituzioen
lana salatu
du Bilgune
Feministak

Tolosako emakumea
nola hil zen «argitzea»
exijitu dute ▶ 5

L. GARCIA



JUAN MANUEL ERASUN ▶ KIROLARIA

«Kirolean, goi mailan
amaitzeak esanahi
handia du niretzat»

Goi mailako lehia utziko du segalariak;
gaur omenaldia egingo diote Bedaion ▶ 7

TOLOSA ▶

Historia, antropologia
eta egungo gizarteari
buruzko jardunaldiak

Bihartik ostiralera bitarte antolatu
dituzte, 19:00etan, Leidorren ▶ 6

TOLOSA ▶

Iraileko
lehen uztak,
udako azken
txanpan

Azokan gaztainak eta
matxakanak agertu
ziren, atzo ▶ 5

papertxulo

Produktu ekologikoak eta produktuak
Purifikatzaileak
Luzatzen dituztenak
Ahorrekin eta plastikozkoak
Fax zerbitzua
Bilgunean dago

Kale Berria, 36 - Beha
20150 VILCARONA (GIBELKHA)

Tel.: 943 69 37 84
e-mail: papertxulo@hotmail.com

UZTURRETIK ▶ AGUSTIN AMIANO

Txori habia patrikan



Inguruko nekazari batek, naturak urtero igortzen zion zerga ekidin nahian, eta bere soroari merezitako etekina atera nahian, txori-izugarri bat jarri omen zuen bere soroaren erdialdean. Egurrez eta lastoz osatutako hezur eta mamiei basoan gasta-gasta

egindako alkandora eta galtzak lotu zizkion, zakuzkoburua eta txapela itsatsi, eta dotore geratu omen zen txori-izugarria (gure etxean ez da inoiz txorimaloa esan).

Aitzurra hartu eta, goizeko freskurak lagundutako saioan artajorran soro erdira hurbildu zenean, ordea, berak jarritako txori-izugarriaren patrikan dorre-txori edo txolarre lotsagabe baten habia zegoela konturatu zen. «Arraioa, txoriak izutzeko jarri diat, eta ihesi behar zuenak bertan habia egin

didak. Hau duk hau burutik behera kaka egitea».

Udako egun hauetako patxadak, halere, burutazio batera eraman nau gertaera honek. Badakit euskararen inguruan lan ugari egin dela eta egiten ari dela, pausuak eta helburuak lasai eta poliki betetzearen aldekoa naiz gainera, baina ez al dira nonahi arantzaz jositako habia ugari ageri? Hainbat eta hainbat saiakera eta lorpen latzen lekuko izatea suertatu zait urtetan, baina administrazioarekin lotutako utzi-

keriaren kaltetu izatea dagokigu noiz-nahi, bele guztien kota. Ez gara beti «agiri hau gaztelera hutsean bidali didazu» esanez ibiliko; edo telefonoz «euskaraz dakien batekin hitz egin nahi dut» botatzea ez da batera atsegin-na.

Aurrerapenaren jarraitzaile, orain baratzetan hondatutako CDak ageri dira, beren distirak eta mugimenduak txoriak izutuko dituelakoan. Halere, CD horietako bat zirinez narrastuta ikusi berria dut. Ez al du ezer adierazi nahiko!

KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



hitza
argazki
lehiaketa
bidali argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldekohitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldekohitza.info



Sari nagusia

2. saria

ZOKETA APARTAK

Asteburua Euskal Herriko landetxe batean

Plaza Etxeberri jatetxean afaria

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE
guztien artean HITZAren mobilak eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

TOLOSALDEKOHITZA.INFO >

Zein dira ikasturte edo lanaldi berrirako dituzun erronkak?

Nik, erretzeai utzikioit. Beti esatet, gauza bea baño befie ezte hitza betetzet. Oain, bai! Tabakoik ez!

ENEKO ZELAIA >

Nik lasaitasun gehiagorekin hartuko dut bizitza, beti lanean pentsatzen ari gara eta ez dugu guretzako denborarik hartzen. Lasaitasuna denontzat.

ARANTXA DIAZ >

Ez ditut erronka bereziak planteatu, izan ere, urtero egin ohi den zerbait bada ere, gehienentan ez da betetzen pentsatutakoa eta gero oraindik okerrago sentitzen zea. Nahiago det ohiko bizitzarekin jarraitzea, ezer berezirik egin gabe. Gainera, ez ditut jasaten telebistak botatzen dituen milaka iragarki horiek. Jasangarriak dira. Horrelakorik, ez.

NAIARA >

Nik lana aldatu nahi dut eta beste pixu batera joango naiz bizitzera. Ez dakit erronka bezala uler daitekeen, baina horiek dira nire oraingo asmoak. Noizean behin aldaketak ondo etortzen dira.

ZAPE >

Erronkak? Egia esan zaila da nire lanean erronkak ikustea.

AMA BAT >

Gehiago pentsatzen dut lana ahal den azkarren amaitu eta etxera joatea. Oporrak uztailean egin ditut eta abuztua dagoeneko nahiko aspergarria izan da. Erronka berria lanez aldatzea izango litzateke. Baina 40 urte dituzunean...

LANGILE BAT >

Nagoen bezela jarraituta ezin kexatuko naiz, beraz, bere horretan mantentzea behintza eskatzen dut. Zer esan dezaket bestela, ea zorteak laguntzen duen eta buruan ditugun amets edo itxaropen horiek lekua izaten duten eta betetzen diren, eta osasunak lagunduta bada are egokiago.

IKER >

Nola egiten diozu aurre iraileko aldapari?

Nola egingo diogu, ba? Ba nik behintzat gerrikoa estutzen. Nire seme-alabekin diru dexente gastatu beharko dut eta beste nunbaitetik moztu beharko dut. Bide batez, aprobeztxatu nahiko nuke gobernari mezutxo bat bidaltzeko, edo dagokionari: ez dago eskubiderik urtero ikasturte hasieran hainbeste diru gastatu beharra. Dena berria, umeentzat liburuak berriak, ... Mesedez, pentsatu beste irtenbide bat, familia guztiak ez baikara heletzen maila horretara eta guztiok dugu eskubidea.

AMA BAT >

Umekin diru asko gastatzea irailen, nik horreatik abuztuan ordu estrak sartzeituntantokin

JOAKIN AGIRREGOMEZKORTA >

Nik lana aldatu nahi dut eta beste pixu batera joango naiz bizitzera. Ez dakit erronka bezala uler daitekeen, baina horiek dira nire oraingo asmoak. Noizean behin aldaketak ondo etortzen dira.

ZAPE >

Nik ez dut haurrik, baina abuztuan beti dago gastu gehiago, oporrak etab. Nik gastu txikiak kentzen ditut: kanpoan gutxiagotan afaldu, parrandak kendu...

EDURNE LASA >

Zein leku aukeratu duzu udako oporraldirako?

Ni aurten etxean geratzen naiz!! guztiok ez dugu hain zorrote ona eta ezin izan dugu kanpora joan. Baina enaiz keajaten ederki asko ibili naiz hemen, festarik festa. Gora Euskal Herria!!

IGOR >

Bada, hilabeteko oporraldia izan dut lanetik eta, egia esan, etxe aldean egotea bera gustura hartu dut. Bertatik, egun beteko irteerak egin ditugu Euskal Herriko beste txokoak ezagutzuz. Bestela, zortzi egun egin

ditugu Adriatiko itsasoaren erretzean, ur garbi eta gelditan murgilduz, lasai-lasai.

->

Kaka! Ni aurten oporrak gabe, etxe zulon! Hoi bai, astebururako parrandak eztizkia ifõrrok kentzen.

KUKU >

Egun batzuetan bi irla eder hauek ezagutu eta ondorengo bi astetan bolondres ibili naiz Cagliariarin (Sardiniako hiriburua). Merezi du hara joateak, hondartzak kristonak dira!

MAITA >

Ni Gironan egon naiz aste bete. Cadaques ingurua ezagutu dut eta Girona Norte ere bai. Oso polita da inguru hori, hotelik gabeko ingurua, beti ere. Beste moeta bateko turismoa egin daiteke: hondartza erdi basatiak daude, eta jan ere ongi jaten da.

LOREA >

Nik furgoneta hartu eta bikotearekin Asturias aldera joan nintzen. Bost egunez, dutxarrik hartu gabe, eta espezial, aizul. Hondartzan zeuden dutxetan pixkat garbitu eta listo! aaai... konfidantzak nazka ematen du...

IMANOL >

Ni Cadizen egon naiz!!! euskaldun pila bat ikusi dut handik gainera! oso ondo ibili naiz kostalde hartan ere. Merezi du hara juteak, aizul. Hurrengo urtean, Gironara

IOSUNE >

Nik Italia aukeratu dut abuztuan oporraldirako. Bigarren hamabostaldian egon nintzen bertan, hain zuzen ere, Roma eta Napoli inguruan. Egun erdiak batean, eta gainerakoak bestean igaro ditut, eta oso aberasgarria izan da, zonalde oso desberdinak izanik Italiako giroan murgildu ahal izan naizelako. Erromak hiri handi eta kosmopolita baten ezaugarriak gordetzen ditu; berria da, arraza askotariko jendea nahasten da, eta lasaia eta abiadura handikoa izan daiteke aldi berean. Turismoa egiteko, erosketak egiteko proposa da, baina italiar benetako ohi-turak, tradizioa eta historia, ezagutzeko hobe beste leku batera joatea, hau da, italiarrak benetan ezagutzeko ez da leku egokia jatorrizko kultura galdu duen hiri handia delako. Napoli eta inguruak horretarako dira egokiak, benetako Italia hurbiletik ikusteko, alegia. Zona honetan Amalfi izenarekin ezagutzen diren kostaldeko herriak gomendatuko nituzke; oso politak guztiak, txikiak eta denek dute xarma berezia. Azken batean, Italia berezia da oso, ikusteko modukoa, eta oporretan egun batzuk igarotzeko ezin hobea, lasai egoteko aukera eskaintzen baitu tenperatura egokiek, eta aldi berean makina bat gauza daudelako ikusteko.

MIKEL >

Ni aurten Sizilian izan naiz, irla guztia zeharkatu dugu eta ikaragarria da! Zoragarria!

AINTZANE >

ESANA >

KARLOS LINAZASORO

TOLOSAKO HIMNOAREN LETRAREN EGILEA

«Tolosako himnoaren letrarekin Tolosaren eta bere auzoen onena isladatu nahi izan dut, eurek ematen baitiote egun herriak duen izaera guztia; Tolosa ez da bakarri San Frantzisko, bere auzo guztiak baizik»

«Enrique Ugarteren musika izugarri gustatu

zitzaidan, oso tolosarra iruditu zitzaidan; San Joan martxarekin zerikusi handia du eta euskal doinua da; ni ondoren hasi nintzen letra idazten, behin musika nuenean»

«Ardura handia suposatzen du niretzat, baina atsegin handiz joango naiz kontzertura»

TOLOSAKO HIMNOA >

Gure herriko auzo /
mendi eta inguru parerik gabeak /
euren altzoan dira /
San Joanen zaintzapean /
zazpi mende luze loratu.
Zenbat gudu!
zenbat festa... (...)

KARLOS LINAZASORO > TOLOSA



Karlos Linazasoro idazle tolosarra. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

iragarki laburrak >

LAN HEZKUNTZA

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurlaritzan, Udalekxetan eta Erakunde

Publikoetan. 943313782.

Harreragileak -Administrari laguntzaileak behar dira Erakunde Publikoetan. 943313782.



jantzi hitzaren jertseak

HITZAren egoitzetan salgai

JAIK ▶

Festetan buru-belarri sartuta umoretsu

Oraindik ere gaurko eguna, biharkoa ere bai bakarren batean, gelditzen da

JAIONE ASTIBIA

Alkizan, Bedaion, Elduainen, Lizartzan eta Zizurkilen festetan murgilduta daude egun hauetan; egun bikain askoak, bai eguraldiz eta bai jai giroz ere. Herri horietako biztanleak ez ezik, bertaratu direnek eta oraindik ere gaur-biharretan etorriko direnek ere egunak bete ikuskizun dituzte gertu. Festarako gogoz etortzea besterik ez da egin behar, beraz.

Eta halaxe ibili ziren atzoko egunez aitatutako herri horietan denetan. Modu askotako ekitaldiak izan ziren han eta hemen, eta honatx adibide batzuk. Alkizan, umeen txirridularitza frogarekin ekin zioten festa egunari, 20 bat haurrek parte hartu zutelarik herria barrena egokitutako zirkuituan eginiko frogan. Elduainen ere tikiak izan ziren protagonista; txokolatea hartuz hasi zuten eguna herriko pilotalekuan bildu ziren haur eta gaztetxoek eta ondoren, jautzika eta zilipurdika ibili ziren puzgarrietan.

Zizurkilen, ordea, adin guztietakoentzat nahiko sardina erre, 50 kilo inguru, eta sagardo banatu zuten; mokadu goxoarekin, sagar-zuku freskoa! Bitartean, motozerralariek, azeria, artzaina eta hainbat

tankerako irudiak egin zituzten, ikuseen harridurarako.

Lizartzan, besteak beste, gaztetxoentzako jolasak antolatu zituzten, arratsaldean. Bedaion, ume jolasak eta gero, *Baserritik baserrira* antzezlanak izan zuten ikusgai, herriko hainbat emakumeren parte-hartzearekin, gainera; duela 60 urte arte herria kale antzerkia egiteko zegoen ohitura berreskuratzeko saiakera eginez.



Zizurkil. Azeria, gizakia... zurezko irudi desberdinak egin zituzten motozerraz, trebe; bitartean sardin erreak sagardoarekin dastatzeko aukera. J. ASTIBIA



Elduain. Goiza txokolatearen indarrez hasita, zilipurdika gustura aski ibili ziren puzgarrietan, elduaindar gaztetxoak. J. ASTIBIA



Bedaio. Herri jolasetan ume askok parte hartu zuen; zaku saltoan — irudian —, aulki jokoak, arrautza eramanen... Bitartean, helduak, batzuk begira eta besteak afariko antolaketa arduratuz. J. ASTIBIA



Alkiza. Herriko txirridulari gaztetxoak frogari ekiteko prest! Ondoren Toka Txapelketa ere egitekoa zuten. NOELIA LATABURU



Lizartza. Buruhandiak, xexena, jolasak, txokolatea gailletekin... gaztetxo guztientzat bazen ongi ibiltzeko aukera. J. ASTIBIA

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROA TOLOSAN

Antolatzailea: Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkarte

• Hasiera: 2006ko urriaren 2an • Amaiera: 2006ko ekaineko lehen astean goizez eta arratsaldean.

Argibideak: 943 67 03 81 eta 666 637 158 telefonoetan • Bulego ordutegia 8:30-14:30 eta 15:30-18:30

Oharra: eskuratzen den ziurtagiria Madrilgo CNSEK balioesten du (Euskadiko Gorren Federazioa erakunde horren barnean dago)

hitza
Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn praktikak egin nahi?
Kazetaritza, Komunikazioa eta Euskal Filologia lizentziaturretako Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua
Urritik abendura aritzeko lanaldi erdiz Kredituak baliozkotuko dira
Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen: Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

TOLOSALDEKO KOMUNIKABIDE ENPRESA BATEK KUDEATZAILEA behar du (Erref.: o6-THK)
Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (ustiapen ekonomikoak, finantzak, fakturazioa, harpidetza eta diru iturri berrien sustapena, giza baliabideak, diru laguntzak...), eragileekin izan beharreko harremanen kargu egingo den kudeatzaile baten bila gabilgita.
Eskatzen da:
• Kontuan hartuko da Kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritua izatea eta eskualdea ondo ezagutzea.
• Euskara onak.
• Izaera dinamikoak, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.
• Gidabaimena eta autoa edukitzea.
Interesa dutenek curriculum-a bidali, irailaren 13a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara:
Helbide elektronikoa: gizabaliabideak@jarduna.net
Posta helbidea: Jarduna, S.L. (Giza Baliabideak Saila)
Martin Ugalde Kultur Parkea. 20140 – Andoain

HAUR HEZKUNTZA ENPRESA BATEK
lan poltsa bat osatzeko hezitzaileak behar ditu
curriculum-ak Tolosa 289 p.k-ra bidali

TOLOSA ▶

Azoka ederra eta oparoa, udako azken txanpan

Iraileko lehen uztak jaso dituzte aste honetan, eskualdeko baserritarrek

PABLO ALBERDI

Joan den asteko eta atzoko eguraldi onak eragina izan du azokan. Alde batetik, erosleen animoak berpiztu egin ditu eta, bestetik, produktu asko bultzatu ditu. Udako barazkiak, tomatearen kasu, oso puntu onean daude orain, eta udazkeneko propioak diren produktu batzuen ekoizpena aurreratu du. Atzo adibidez, aurtengo lehenengo gaztainak eta matxakanak ikusi genituen. Fruta eskaintzan beste nobedade garrantzitsu bat izan zen. Atzo muxurta ikusi genuen mahai batean. Hau, bertako mendiko melokotoia da, txertatu gabekoa. 2 euroko prezioan saldu zen, eta datorren asterako ere salgai izango dugu.

Perretxiko zerrenda ere osoa izan zen. 100 kilo onddo, 50 kilo ziza hori, 20 kilo nikalo, eta beste 20 tronpetena. Lehenengo biak 24 euro kiloko saldu ziren, nikaloak 15 eurotan, eta tronpetak 20ean.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Txilarra	3,00	4,30
Hortentsia	10,00	12,00
Erromeroa	4,00	6,00
Japoniar azalea	5,00	6,00
Porrúa	2,40	-

Bertako produktuak

Hurrak	2,00	-
Pikuak	2,50	-
Sagarrak	1,50	3,00
Tomatea	2,50	4,00
Piparrak	5,00	6,00
Kalabazina	0,72	-
Azenarioa	1,20	3,00
Arraultzak	1,30	2,10
Artisau ogia	2,29	2,97
Ardi gazta	14,00	19,00
Behi gazta	7,00	7,50

Produktu ekologikoak

Inbaurrak	4,00	6,00
Baratzuriak	1,60	3,04
Dilistak	2,40	-
Erremolaba	1,60	-
Aza	2,50	3,00
Ahuntz gazta (200gr.)		3,00
Mermelada	3,00	3,60

POLITIKA ▶

Hilaren 13an elkarretaratzea egingo du ezker abertzaleak

Tolosako sorrerari «irakurketa ezberdina» egin behar zaiola aldarrikatuko dute



Eskualdeko ezker abertzaleko ordezkariak, atzo, prentsaurrekoan. E.E.

ESTI EZEIZA

Tolosa ospatzen ari den 750. urteurrenaren harira, ezker abertzaleko ordezkari politiko eta sozialek sorrera horren ira-

kurketa desberdina egin nahi dute. Izan ere, beraien ustetan, «data hau ez da ospatzeko gauza bat, oroimenerako eta gogoratzeko zer bait baiziki». Hala, herritarrei deialdia luza-

tzen diete hil honen 13an, 18:30ean, Leidor parean egingo den kontzentrazioan parte hartzeko. Elkarretaratzeak, hainbat mezuz gain, 750 urte eta gero... Euskal Herria bizirik toloa izango du aldarri.

Ezker abertzalekoen ikuspuntutik, Gaztelako erregeak, interes ekonomiko eta estrategikoengatik erabaki zuen Tolosa hiribildu izendatzea. Horregatik, Antton Izagirre Tolosako alkate ohi eta hautetsiak prentsaurrekoan agertu zuenez, «Tolosak ez dio ezer zor Gaztelako erregeari, lehenago ere existitzen baitzen». Hori dela

eta, herritarrei, nahiz eta ospakizunetan parte hartu, urteurren honi zentzu ezberdin bat emateko eskatu nahi die, eta 750 urte hauek, «horrenbeste urte eta gertaeren ondoren, Tolosak bizirik dirauela» islatzen baitute. Dena den, «bizirik bai, baina menpekotasunean, bai orain dela 750 urte, eta baita orain ere».

Bestalde, 1256. urtean gauzak beste modu batean gertatu izan balira, garapen historikoa ezberdina izango zela uste dute Tolosa Bizirikeko ordezkariak, eta agian, «burujabe izango ginatkeela orain».

GIZARTEA ▶

Instituzioen lana salatu du Bilgune Feministak

Tolosan, hilik aurkitutako emakumearen kasua lehenbailehen argitzeko exijitzen dute

E. EZEIZA

Uztailaren 31n, Tolosan, hilik agertu zen emakumearen ezbeharraren harira, prentsaurrekoa eskaini zuen atzo Tolosaldeko Bilgune Feministak. Bertan, heriotza honen kasua ahalik eta azkarren argitzeko exigitu zuten, eta «behingoz, egia esateko familiko kideei eta

inguruko lagunei». Honekin batera salatu zuten, «instituzioetatik planteatzen diren neurriak ez direla nahikoak, ezta eraginkorrek ere». Hori dela eta, Bilgune Feministakoen ustetan, «prebentziorako neurrien beharra presazkoa da, tratu txarrak zein edozein motatako eraso sexistak pairatzen dituzten emakumeentzako



Tolosaldeko Bilgune Feministako ordezkariak, atzo. E. EZEIZA

erantzun eta artatzerako plan integral eta eraginkor bat guztiz beharrezkoa den bezalaxe».

Bestalde, Azaroaren 25ean Nazioarteko Indarkeria Sexis-

taren Aurkako Eguna ospatuko da, eta bitartean, atxikimendu eta firma bilketak burutuko dituzte eskualdean zehar, salaketa sozial bat egiteko asmoz.



ASTEASU: Guztiz eraberritua. Hormigoizkoa. Primerakoa. 35.500.000 pztá.

TOLOSA: 3 logela. Eraberritzeko. Hormigoizkoa. 31.000.000 pztá.

TOLOSA: Zumalakarregi. 3 logela, 2 bainugela 100 m². Erabat berritua.

VILLABONA: 2 logela. Kalitatezko materialak. Berogailua eta igogailua. Bikaina. 44.000.00 pztá.

VILLABONA: 75 m² erabilgarriak. Txukuna. Altzariz hornitua. Hormigoizkoa. 36.000.000 pztá.

VILLABONA: 2 logela. Erdi eraberritua. 35.000.000 pztá.

VILLABONA: Eraikuntza berriko apartamentua, bikaina.

ZIZURKIL: Ertzeko etxe itsatsia. Lursailarekin. Aparta.

ZIZURKIL: 3 logela, egongela, sukalde, bainugela eta trasteleku. Terraza ederra. Igogailua. 41.500.000 pztá.

Errota 2 - Villabona

Olazinmo@euskalnet.net

943 243 118 - 635 706 728



goxoagurea

egiozu hozka!

VILLABONAN EDO ZIZURKILEN EUSKARA IKASI NAHI BADUZU...

- Taldé homogeneoak sortuz gero, ikastaroak Zizurkilen edo Villabonan bertan antolatuko dira, inora joan beharrik izan gabe.
- Zere Udalak matrícularen %75 arte ordainduko dira.

Villabonako Udalak laguntzak eskainiko dituzte suakare ikasteko Villabonan bertan edo herririk larpo. Gukionez, honako leialditzak hauek bete behariko dira:

- Villabonan erroldatuta egotea.
- Gukionez %85eko asistentzia.
- Aldeko txostena erroldamenduari dagokionez.
- Matrícula ordainduta izatea.

* Informazio gehiago lortu dezake gure webgunean www.goxoagurea.net edo info@goxoagurea.net helbidera idazki bidez edo zuzenean 943 243 118-635 706 728.



GIZARTEA ▶

EGITARRAUA ▶

BIHAR

Izenburua. *Gizartea: Nola eta zergatik antolatzen dira gizakiak.* (Gaztelaniaz).

Hizlariak. Manuel Gonzalez Morales (Historiaurrean katedraduna Kantabriako Unibertsitatean) eta Alvaro Arrizabalaga (Historiaurreko irakaslea EHU).

Aurkezlea. Carlos Olaetxea (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare zerbitzuko arkeologia teknikaria).

ETZI

Izenburua. *Nafarroa versus Gaztela.* (Gaztelaniaz).

Hizlariak. Julio Valdeon (Erdi Aroko historian katedraduna Valladolid-eko Unibertsitatean) eta Aitor Pescador Medrano (Nafarroako Unibertsitateko irakaslea).

Aurkezlea. Elena Barrena historialaria.

ASTEAZKENA, HILAK 13

▶ Ekitaldi nagusia Elena Barrenaren eskutik.

OSTEGUNA, HILAK 14

Izenburua. *Industrializazioa eta globalizazioaren inguruko hausnarketa.* (Euskaraz).

Hizlariak. Iban Zaldua (Idazlea eta historialaria. EHU) eta Aingeru Epaltza (Idazlea eta kazetaria).

Aurkezlea. Jimu Iturralde (Idazlea).

OSTIRALA, HILAK 15

Izenburua. *Hirien hazkundeari eta dinamika urbanoi buruz hausnarketa. Lurraldean prozesu hauek duten eragina.* (Gaztelaniaz).

Hizlariak. Josepa Cuco (Giza antropologian katedraduna Valentziako Unibertsitatean) eta Joan J. Pujadas (Rovira i Virgili Unibertsitatean Giza antropologian katedraduna).

Aurkezlea. Teresa del Valle (Eusko Ikaskuntzako Gipuzkoako Lehendakariordea).

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. Interesatuak deitu 677 32 99 34 telefono zenbakira.

Tabernaria. Asteburuetan tabernan lan egiteko pertsona behar da. 615 78 90 06.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.

Historia, antropologia eta egungo gizarteari buruzko hausnarketa

Eusko Ikaskuntzak, Tolosako Udalak eta 750 Fundazioak 'Tolosa 750 jardunaldiak' antolatu dituzte bihartik ostiralera



Herriko hainbat bokotan ohartarazi dute aurten Tolosaren 750. urteurrena dela. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Bihar hasi eta ostirala bitarte, Tolosaren 750. urteurreneko egitarauaren baitan, *Tolosa 750 Jardunaldiak* antolatu dituzte Eusko Ikaskuntzak, Tolosako Udalak eta Tolosa 750 Fundazioak.

Bost egunetan banaturik hitzaldiak eskainiko dituzte hainbat adituk; jardunaldi hauek historiari, antropologiari edota gaur egungo gizarteari buruz aditu hauek eginiko hausnarketek osatuko dituzte. Gizakien antolakuntza, industrializazioa, globalizazioa, eta hirien hazkundera bezalako gaiak jorratuko dituzte, hain zuzen. He-

rritar guztientzat irekiak dira, eta 20:00etan izango dira Kultur Etxean, asteazkeneko jardunaldia izan ezik. Izan ere, 750. urteurreneko egun handia izaki, egitarauaren ardatz nagusia izango da, Leidorren, 19:00etan hasiko den ekitaldia.

Asteazkeneko ekitaldi nagusia Erdi Aroko historian katedraduna den Elena Barrenaren eskutik joango da. Hiri-gutunaren irakurketa egingo du eta Erdi Aroko herrien sorreraren inguruan hitzaldia eskainiko du. Ekitaldian zehar Hodeiertz abesbatzak abestuko du, eta Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariak eta Jokin Bildarratz To-

losako alkateak ere hitz egingo dute herriaren 750. urteurrenaren harira. Gainerakoak bezala, ekitaldi hau ere herritarrentzat irekia izango da.

Biharkoa, antolakuntza

Jardunaldietan estreinakoia izango da biharkoa, eta giza-kien antolakuntzari buruz jardungo dute. Manuel Gonzalez izango da hizlarietako bat; Filosofia eta Letretan lizentziatua eta doktoretua Oviedoko Unibertsitatean eta katedraduna Kantabriako Unibertsitatean. Bere lanak Goi Paleolitikokoan eta Mesolitikokoan oinarritu dira, eta garrantzi berezia eman dio Paleolitoko arteari.

Gonzalezekin batera, Alvaro Arrizabalaga ariko da; Historian doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurreko irakaslea. Bere ikerketaldio nagusia, Tipologia Analitikoak, serie litikoei aplikatua, eta Erdi-Paleolitikotik Goi-Paleolitikorako igaraldia dira. Indusketak egin ditu, besteak beste, Gipuzkoako Labeko Koba, Lezetxiki eta Irikuaitz aztarnategietan. Bestalde, Carlos Olaetxea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare zerbitzuko arkeologia teknikaria izango da biharko moderatzailea.

HEZKUNTZA ▶

Bihar ekingo diote ikasturteari Samaniegon

Samaniego ikastetxean bihar hasiko dute ikasturte berria. Ikasleak 09:00etan hasiko dituzte eskolak eta 13:00etan bukatuko dituzte. Haur Txokoak, berriz, goizean goiz, 07:30ean, irekiko ditu bere ateak. Bestalde, autobus zerbitzua lehenengo egunetik erabilgarri izango dela jakinarazi dute Samaniego ikastetxetik; era berean, jangela eta ludoteka zerbitzuak ere erabiltzeko prest izango dituzte izena eman duten guztiek.

MUSIKA ▶

Bihar hasiko dute ikasturtea Udal Musika eskolan

Eduardo Mocoora Tolosako Udal Musika Eskolatik jakinarazi dutenez, bihar hasiko dute 2006-2007 ikasturte berria.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411

- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228

- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

- ▶ **Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ **Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Zuetako askok opporretarako atzerriko herriren bat aukeraturiko zenuten, eta beste askok, berriz, bertan topaturiko zenuten atsedenerako leku egokia. Zein leku aukeratu duzu zuk opporretarako?» Horixe da gure webgunean iritzia eman dezazun proposatzen dizugun gaia.

Ileapaindegia. Eskarmentudun langilea behar da ileapaindegirako. 625 70 50 59.

SALGAI

Furgoneta. Furgoneta salgai. California 2,5 TDI.Extrak. 50.000 km. 2003koa. Interesatuak deitu 685 75 17 43.

Pago enborra. Tximenetako zatituta dagoen pago enbor lehorra salgai. Deitu 646 53 71 15 telefono zenbakira.

JUAN MANUEL ERASUN ▶ SEGALARIA ETA AIZKOLARIA

IMANOL GARCIA

Herri kirolean izenik ezagunetako da Juan Manuel Erasun (Aia, 1963). Segan eman du batez ere zeresana egun Zizurkilen bizi den kirolariak, baina aizkoran ere urteak darmatza. Festen baitan, Bedaion omenaldia egingo diote gaur, 19:00etan, herri kirolen goi mailako lehia utzi behar duela.

Nola sartu zinen herri kirolen munduan?

1986. urtean jokatu nuen lehenengo apustua, Andoainen, Garaten. Hain justu bertan jokatu dut ere azkenengo apustua. Orduan German Egiluz Bizkaiko txapeliduna eta Euskadiko txapelidunordearen aurka aritu nintzen segan eta irabazi egin nion. Berez auzo arteko lehia baten ondorioz, herritar baten aurka jokatu behar nuen, baina hori azkenean hurrengo urtean egin zen, 1987an, Iturriotzen, eta hari ere irabazi nion.

Eta gero?

Aurkari izan nuen herritarren prestatzailea Asteasuko Irazusta zen. Garai hartarako utzita zuen kirola, baina 10 txapela irabazitakoa zen eta izugarrizko palmaresa zuen. Berak desafio egin zidan niri eta 1988. urtean jokatu genuen. Segan munduan izan den desafiarik handiena, edo famatuena behintzat, jokatu genuen. 10.000 ikusle inguru joan ziren, komunikabideek esan zuten. Seguruena, apustu batean inoiz jokatu den diru kopuru gehiena ordukoak izan zen.

Eta irabazi egin zenuen.

Bai, diferentzia atera nion. Oso ondo prestatuta joan nintzen. Sortu zuen ikusminak asko motibatu ninduen.

Hasierako urte horietatik duzu lotura Bedaiorekin.

Bedaiaora lehenengo aldiz 1987. urtean joan nintzen, urte hartako apustua prestatzera. Nire prestatzaile eta laguntzaile Jose Mari Zulaika *Paskualsoro* bertan bizi da eta hari esker joan nintzen; ordudik izan dut oso gustukoa herria, oso maiztagarria. Egia esan, Aia, Zizur-

«Goi mailan amaitzeak esanahi handia du niretzat»

Bedaion omenaldia egingo diote gaur Juan Manuel Erasuni; goi mailako lehia utziko du segalari eta aizkolariak



I. GARCIA

kil eta Bedaio nire bihotzean dauzkat. Apustu garrantzitsuak izan ditudanean, egunero bizitzatik ateratzeko, konzentrazio moduan joan naiz hara. Mendian dagoen herririka bat da, oso lasaia eta oso gustuko dut.

Segaz gain, aizkoran ere aritu zara.

1989an hasi nintzen aizkoran. Askok gustatzen zitzaidan aizkora eta ikasi egin nahi nuen. Urte bat geroago jokatu nuen Olasagastirekin aizkoran eta segan apustua. Iazkoa izan zen horren errebantxa.

Zer suposatu dute zuretzat herri kirolek?

Baserrian jaio eta baserrian aritu naiz lanean. Segalaritza gustuko izan dut eta gero herri kirolean sartu nintzenean, gauza garrantzitsua bihurtu zen niretzat. Lanbide izatetik kirola ere bihurtu nuen eta horrekin batera kultura ere. Herri kirolak nahiko baztertuak izan dira eta saiatu izan naiz bultzada bat ematen, lan onak egin ez eta horretarako prestakuntza ona izanez. Herri kirolak askotan egon dira lotuta prestakuntza faltarekin, eta saiatu naiz

prestakuntza bat, metodologia bat bultzatzen. Ez dut guztia aldatu. *Paskualsoro*k emandako eskola zaharrek aholkuak ere garrantzitsuak izan dira. Lehenengo erak ere bazituen gauza onak eta horiek gaurko metodoekin lotzen saiatu naiz.

Nola ikusten duzu gaur egungo egoera?

Segalaritzari begira, gustatuko litzaidake txapelketak eraberritzea. Orain 25 edo 26 urte federazioak sortu ziren eta haiek jarritako sistema bere horretan dago. Iruditzen zait erakar-garritasun gutxi duela. Badakit

diru gutxi dagoela, baina segalaritzan gainera lagun talde bat behar izaten duzu; horiei afari bat ordaintzeko dirurik ere ez da izaten. Ez da diruagatik, baina bilatu behar da kirolaria motibatuko duen eragingarria. Baserririk ere gutxitzen ari dira eta, ondorioz, segalariak ere gutxitzen doaz. Egun, badaude segalari kaletarrak, baina ez dago eskolarik horiei laguntzeko. Merkatuan ez daude erosteko segak, lanabesa bera.

Omenaldia egingo dizute Bedaion, nolabait maila goreneko herri kirola uztera zoazelako.

Txapelketa nagusiak eta apustuak egiteko asmorik ez dut. Horrek ez du esan nahi erakustaldiak, festa giroko saioak, nazioarteko eran arituko ez naizenik. Den-dena ez dut uzteko asmorik, baina ez litzateke izango goi mailako lehian.

Aspalditik zenuen pentsatuta hori?

2003an esan nuen ziurrenik urte hartakoa azken apustua izango zela. 2004. urtean ez nuen ezer egin eta nire burua erretiratzearen bide horretan jarrita neukan. Urte horretako irailean, oportetan nengoela, sortu zen Olasagastirekin apustua egitearena. Gero nik neuk ere bultzatu egin nuen, banuelako gogoia, eta berriro itzuli nintzen. Iaz izugarriko dedikazioa eman nion. Banekien azkeneko apustua izan zitekeela eta hor txapelketak eta denak lortu nituen, urte boro-bila ateratzeko, eta amaiera ona emateko kirol ibilbideari.

Apustua irabaztea izan zen bereziena?

Izugarrizko poza sentitu nuen. Alde batetik, 15 urte beranduago horrelako lanak egiteko gai izatea. Horrek esan nahi du kirol bizitza nahiko luzea izan dudala eta gainera hamabost urte horietan ez dudala galdu. Seguruena, Iaz eman nuen nire gailurra. Eta hori oso garrantzitsua izan da balantzea egiteko garaian, hamabost urtetan goi mailan mantentzea oso garrantzitsua baita. Horrela amaitzeak, ezinean baino, esanahi handiagoa dauka niretzat.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

► hilberriak
► urteurrenak
► eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

eskertza ▶

ESKERTZA
Irailaren 1ean hil zen

Jose Luis Zaldia Esnaola
—Goian bego—



Bere emaztea: Arantxa Aseginolaza Azkargorta eta gainerako ahaideek oso eskertzen dizuete samin-agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara etorri zineten guztioi ere.

BEASAIN, 2006ko irailaren 10a

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. XVII. Joxean Tolosa Pilota Txapelketako finalerdiak, 17:00etan, pilotalekuan. Kadeteetan, Goienetxe-Otamendi; gazteetan, Iturrioz-Goikoetxea; nagusietan, Jauregi-Olazabal.
Leitza. Taloaren Eguna. Eguerdira arte, talo dastaketa eta salmenta, lehiaketak eta plater erakusketak. Ondoren, Nafarroako Herriz Herri Txapelketako azken saioa.
Orendain. 09:00etan, herriko plazatik abiatuta, mendi irteera. Ondoren, bazkaria egingo dute.
Tolosa. Santamariako kaperak 11:00etako mezan abestuko du, Izaskungo Ama Birjiniaren Eguna ospatzeko.
Tolosa. TEEK antolatuta, San Frantzisko elizan, 19:30ean, Hodeiertz abesbatzaren eta Japoniako Aoi Tori abesbatzaren kontzertua.
Tolosa. Eduardo Mocoeroa Udal Musika Eskolak bihar hasiko du ikasturtea.
Villabona. Enrique Abril Errebote Txapelketaren baitan, Behar-Zana elkarteko pilotariak, Uztaritzeko Kapito Harrikoen aurka jokatu dute, 09:00etan, Errebote Plazan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Azpiroz, M.L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.
Bihar
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
Gaur
10:30-13:00. *Hitzak hegan* magazina (errepikapena).
Bihar
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, Hitzaren errepasoa, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:00. *Argizirin aitaldia*, Xorroxin irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Ekitaldiaren hasieran agurra dantzatu zieten agintariei. E. EZEIZA



Antzokiko 880 eserlekuak bete ziren ostiralekoan. E. EZEIZA

Berriro gurekin

TOLOSA ▶ Ehunka tolosar bildu ziren, herenegun, Leidor antzoki eraberrituaren inaugurazioan; Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin eman zitzaion ongietorria



Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertuarekin inauguratu zuten Leidor. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Armairuko soineko eta jantzi onenekin atondu ziren herenegun tolosarrak. Ekitaldiak ez zuen gutxiago merezi, ia urtebeteko lan gogorren ondoren, atea berriro ireki baitzuten Leidor antzoki esanguratsuak.
Ikusminez, ehundaka herriar hurreratu ziren zinemara. Hasteko, agurra dantzatuz, ongietorri harrera egin zitzaion Tolosako Udaleko ordezkariari eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Gipuzkoako Ahaldu Nagusiari. Horren ondoren, ekitaldi nagusia etorri zen. Hasteko, Aitor Elduaieken, aurkezle lanetan aritu zenak, lanen eta eraikuntzaren inguruko zenbait datu eman zituen. Eta ondoren, txalo zaparrada batekin, hasiera eman zitzaion Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertuari. Hauek, eskenatoki berriak neurtzen dituen 12x14 metroak ez ezik, antzokiguztia betetzea ere lortu zuten. Horren adierazle izan ziren, hain zuzen, tolosarren txaloak.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Izaro Gabirondo (Alegia). Gaur 10 urte. Zorionak denon partetik!
URTE ASKOAN
Lierni Arozena Zubizarreta. Gaur 5 urte. Zorionak etxeko partetik.
URTE ASKOAN
Izaro Etxaniz (Tolosa). Gaur 9 urte. Zorionak sorgin biki! eta muxu handi bat familiaren partez.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.
▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behe
▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa